



Amesgaiztorik ez! ¡Que no te quiten el sueño!



ERAKUSKETAREN DESKRIBAPENA

Erakusketak 5 gai-multzo ditu, eta hondakinaren arlo bat lantzen da multzo horietako bakoitzean, orokorretik, zehatzera, iraganetik etorkizunera... Kontuan hartzen dira, halaber, hondakinaren ekoizpena (kantitatea eta kalitatea), tratamendua eta kudeaketa, eta hondakinaren sorreraren eta kudeaketaren bilakaera kronologikoa. Amaitzeko, etorkizunari buruzko prospektiba aurkezten da, eta herritarrak parte hartzera eta ekarpenak egitera gonbidatzen dira.

GAI-MULTZOAK

1. GAI-MULTZOA - HONDAKINEN EGUNGO EGOERA

Gai-multzo honetan, modu generikoan lantzen da hondakinei buruzko gaia: definizioa, sailkapenak eta etxeko hondakinak. Kontsumoaren eta hondakinaren sorreraren arteko harreman zuzena ere aztertzen da, baita horrek sortzen dituen ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-arazoak ere.

Gai-multzo honetako euskarria 6 minutu inguruko ikus-entzunezkoa da. Plasmazko pantaila batean proiektatzen da; pantaila ispiludun modulu batean dago, eta horrek efektu optiko zirkunferentziala sortzen du (ispilu-kaleidoskopia).

2. GAI-MULTZOA - ETXEKO HONDAKINAK

Zenbat zabor sortzen du Gipuzkoako familia arrunt batek? Zaborretara botatzen ditugun elementuak ekoizteko, lehengaiak nahiz energia gastatzen dira, eta hondakinak sortzen dira prozesu horietan ere. Familia arrunt batek urtean zenbat zabor sortzen duen kalkulatzeko badugu, zifra kezagarriak lortuko ditugu.

Prisma-itxurako beirazko 4 edukiontzitan, lau kideko familia batek urtean behar dituen ur-botilak, esnearen eta zukuaren tetrabrikak, papera, kartoia eta latak erreproduzitzen dira, hiru dimentsiotan. Lau taulatan, gainera, produktu horien kontsumoaren eta produktu horien hondakinaren ingurumen-gastua islatzen da. Datu horiekin batera, eguneroko jarduerak agertzen dituzten familia-irudiak ikusten dira.

Multzo hori osatzeko, etxe baten maketa dago, gela eta guzti: sukaldea, bainugela, egongela eta logelak. Sei sakagailu daude bertan, eta hondakin-motak (materia organikoa, papera eta kartoia, plastikozko





eta beirazko ontziak, tamaina handiko hondakinak eta ehunak, etxeko olioa eta etxeko hondakin arriskutsuak, eta etxetresna elektrikoak) irudikatzen dituzte. Sakagailu horietako edozeini ematean, proiektzio multimedia bat jartzen da martxan maketaren ondoko pantaila lauan. Proiektzio horretan, hondakinaren sorrerari eta sorrera hori gutxitzeko aholkuei buruzko mezuak ematen dira.

3. GAI-MULTZOA - HONDAKINEN EGUNGO KUDEAKETA ETA TRATAMENDUA.

Batzuetan, herritarrek ez dituzte galdera arruntenen erantzunak ezagutzen. Adibidez: zer gertatzen da hondakinekin zabor-poltsa edukiontzian utzi ondoren? Nora eramaten dira? Nola birziklatzen dira? Zer azpiegitura daude hondakinak tratatzeko? Nola funtzionatzen dute?

Multzo honetako edukiak hondakin-moten egungo kudeaketari buruzkoak dira, bai Gipuzkoako lurraldeari buruzkoak, bai Tolosaldeko Mankomunitateari buruzkoak.

Lehen moduluan, jolas bat dago, eta parte-hartzaileek zenbait hondakin tratatzeko edo kudeatzeko aukera egokiena aurkitu behar dute.

Bigarren moduluan, Gipuzkoako Hiri Hondakin Kudeaketa Plan Orokorrari (2002-2016) eta erakusketa hartuko duen mankomunitate bakoitzari buruzko panela dago. Informazio horrekin batera, lurralde historikoaren mapa agertzen da, eta bertan, egungo azpiegituren banaketa. Taula horren ondoan, berriz, baskula oso berezia dago, gipuzkoar batek egunean zenbat zabor sortzen duen azaltzen duena.

Modulu hori hiru dimentsioko bi maketek osatzen dute: erraustegiaren maketak eta konpost-plantaren maketak. Biek eskema bat dute ondoan, nola funtzionatzen duten azaltzeko. Grabazio batean berriz, kalean, komunikabideetan, hitzaldietan nahiz adierazpen publikoetan jasotako iritziak bildu dira, eta azpiegitura horiei eta hondakin kudeaketari buruzko iritzi, iruzkin eta informazio zehatzak islatzen dituzte.

4. GAI-MULTZOA - NOLA IRITSI GARA EGOERA HONETARA?

Hondakin egungo egoera eta hondakin sorrerari eta kudeaketari dagokionez zer egoeratan gauden azaldu ondoren, ibilbide kronologikoa egiten da, historiaurretik gaur egunera artekoa. Mugarri batzuk nabarmentzen dira eta kontuan hartzen dira honako datu hauek:

- produktuen kontsumoaren bilakaera eta hondakin sorrera,
- material berrien agerpena (plastikoak, tetrabrika),
- gorakada demografikoa,
- hondakin kudeaketaren eta tratamenduaren bilakaera,
- gaiari buruzko informazio kanpainak eta ingurumen-hezkuntzako kanpainak eta,
- produktuak birziklatzea.

Eduki horiek irudikatzeko, hiru dimentsioko elementuak, objektuak eta argazkiak erabili dira; esaterako, udaletan jasotako akta zaharrak, XX. mende hasieran zabor-bilketa nola egiten zuten azaltzen duten argazkiak, tresnak...



5. GAI-MULTZOA - ETORKIZUNARI BURUZKO PROSPEKTIBA

Guztiok gara arazoaren zati, baina baita, paradoxikoki, irtenbidearen zati ere, eta horri erantzuteko gai izan behar dugu.

Kontsumo arduratsua, sormena, elkartasuna, bidezko merkataritza, ikerketa, lankidetzatza, ahalegin komuna, gizarte- eta ekologia-kontzientzia, nahiz espirtu kritikoa kontuan izan behar ditugu gure eguneroko ohituretan, arazoa konpontzen lagundu nahi badugu, behintzat.

Herritarrak chartarazten dituen modulua da azkena, hausnartu eta parte har dezaten, gure eguneroko jarrerak hondakinen sorreran duten eragina murrizt dadin, erakusketa guztian ikus daitekeen moduan, hondakinek “loa galaraziko baitigute”, ezer egin ezean.

Taula batean, txartel batzuk daude, eta herritarrak gonbidatzen dira arazoa konpontzeko ideiak, iradokizunak eta gomendioak ematera.



21
Euzko Legeburu Batzar Nagusia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



TOLOSAKO UDALA